

## EGIATEGI: EUSKAL BIBLIOGRAFIAREN OSATZALE

Hondarribia, 1981-XII-29

P. Lafitte

Ondarreko *Euskera* aldizkarian Aita Casenave Harigile urgazlearen txosten eder eta jakingarri bat irakur daiteke, hemezortzigarren mendeko Egiategi-ren euskarazko esku-idazkiez.

Pasarte batean aipatuak zaizkigun filosofo xiberotarrak begiraanean zauzkan zenbait euskal-liburu.

Euskal-bibliografiari buruz iduri zait ekartzen daukutela zenbait argi berri.

Hasteko, badakizue *Exercicio izpirituala* izeneko eliza liburua 1716-etik 1937-rat 83 aldiz bederen argitaratua izan dela. Orai arte Vinsonekin uste ginuen obra hori sortu zela 1716-ean. Bainan huna nun *Egiategiri* eskerrak jakiten dugun, *Pedro Argain* baten obra dela eta 1686-ean agertua. Idazle horren izenik ere ez ginakien.

Aipatzen dauku bertzalde 1642-ko liburu bat: *Marinearen eginbidiaz* eta egilea ere izendatzen: *Saro de Laburtarena*. Nik segurik ez ditut bertze nehun kausitu ez titulu hori ez deitura hori.

*Oihenart* handiaren *Gaztarua neurtitzetan* nork ez zuen ezagutzen?, bainan *Egiategik* erakasten dauku agertu zela ere 1664-ean poeta beraren *Zahararoa neurtitzetan*.

Haatik hutsean atxemaiten dugu *Geroko gero* argitarapena 1641-ekotzat emaiten duelarik alabainan. Axularren liburuaren ateratzeko hiru baimena emaillek 1642-an izenpetu zuten nork bere ageria eta *Gero* argitarapena 1643-ko urtegarrena bardakar. Baditeke Egiategi-ren eskuzko xifrea ez den xuxen irakurtu.

Casenave jaunak, idazle eta obra horietaz Egiategi-ren irakurgaietan aipu ditu *Chourio*, Joanes Etcheberri Ziburukua, Beriain eta Joanes Leizarra-ga. Bainan aitortzen du bertzerik ere badirela izendaturik.